

SOR

KUN

TZA

BEKAK 2025

SORKUNTZA BEKAK 2025

MEMORIA

SORKUNTZA BEKAK

1- Martzel Do Nascimento Goiria

2- Sara Agiriano Umerez

3- Irene Balzategi Arcauz

4- Irune Aramendi Alberdi

5- Arriet Aldalur Lizaso

SORKUNTZA EGONALDIAK

6- Xabier Lopez Jimeno

7- Irene Zarrabeitia Mendez

Martzel Do Nascimento Goiria

Bilbo, 1997



ZUBIAK

Proiektu honetan, gaur egungo pinturaren balioa eta legitimitatea sendotu nahi dut. Pintura merezi duen arreta eta mimoarekin lantzen bada, ikuslearen begiek koadroaren gorputza ikutu dezakete. Hau da, objektu horrekin modu oso ezberdinean dialogatzeko aukera ematen du, telefonoaren pantailan behin scrolleatu eta betirako zingira digital arkeologikoan hondoratzen den irudi baten aurrean dugun jarrera pasiboaren kontrara.

Pinturaren kalitate fisiko hori landu nahi izan dut, non begiek ukitzeko gaitasuna duten, eta horretarako, gaur egungo diruaren eta haren pertzepzioaren arteko paralelismo bat proposatzen dut. Banku-txartelak, Bizum bidezko ordainketak, banku-aplikazioak eta contactless ordainketa-teknologiak, besteak beste, diruarekin dugun harremana aldatu dute, onerantz zein txarrerantz. Paperezko dirua atzean geratu da.

Diru fisikoa truke-tresna gisa, bere materialtasunagatik, beste era batera sentiarazten gaitu: gastuak partekatzean, zor bat ordaintzean edo are gehiago, boterea erakutsi eta proiektatu nahi denean.

Horretarako, Robert Kalinak 1996an diseinatutako euro billeteen eredua hartu dut proiektuaren ardatz gisa. Diseinatzaileak erabaki zuen billete bakoitzaren balioa ate eta leihoekin irudikatzea aurrealdean, eta zubiekin atzealdean, eta azken honek izena ematen dio aurkezten den proiektu honi.

30°

2/3



Sara Agiriano Umerez

Eskoriatza, 1998



PALINPSETO

Palinpsestok etengabe berridazten den azalera bati egiten dio erreferentzia, behin eta berriz abiapuntu bihurtzen den espazio bati. Antzinako ur-biltegian memoria eta materia nola gainjartzen diren aztertzen du, denboran geldirik gelditu den arkitektura lurrean inskribatutako gorputz gisa ulertuta. Bere hodiekin, balbulekin eta hezetasunek, behin zer izan zen kontatzen digute. Horregatik, erabilerak, oroitzapenak eta fikzioak pilatzen dituen espazio bezala interpretatzen dut.

Bertan, arkitekturaren eta naturaren arteko mugak lausotzen dira, arkitektura paisaia bihurtuz, eta paisaia, artxibo. Era berean, espazio publiko eta pribatuaren arteko mugak desagertzen dira. Espazioarekin harremantzeko ditugun joerak aldatzeko, lurzoruko eraldaketa txikiak proposatzen ditu proiektuak, monumentaltasun apalago baten bidez, ingurua eta erabilera-praktikak nola eraldatzen diren aztertzeko.

Proiektua, beraz, metaketaren bidez garatu da, ekintza bakoitzak geruza berri gisa funtzionatu baitu. Geldirik dagoen makineria horren aurrean, proiektuak trazu horiek luzatu eta desbideratzen dituzten keinuak planteatzen ditu. Hortaz, lana ez da azken forma batera bideratu, geruza guztia horien hibridazio batera baizik.



Irene Balzategi Arkauz

Oñati, 1993




ERDI MENDI, ERDI OROIDI, ERDI UR

Erdi mendi, erdi oroldi, erdi ur gorputzari buruzko ikerketa somatiko eta performatibo batetik sortu da: gorputza, lurralde likido gisa; atsedena, afektuak eta zaintza-espazioak ikertu ahala. Lanaren zati bat Azpeitiko garbitoki publikoan eta bere ibaietan kokatu da. Leku historiko eta gailu afektibo gisa agertzen da horixe, hots, lan egiteko, zaintzeko, abesteko eta atsedeen hartzeko gune gisa.


Ura, kantua eta gorputza ditu proposamen honek ardatz. Proiektuak gure izaera urtsu, porotsu eta erlazionala ekartzen digu gogora. Baita elkarrekin konektatuta dauden gorputzak garela eta inguru-nearekin etengabeko sintonian gaudela ere. Irristaka, dantzan, hondoratzen, dardarka. Negar eta barre egin, atsedeen hartzen duen eta besteengandik eusten uzten den gorputz horren gisara.

Sara Torresek dio gozatzen duen gorputza beti dela susmagarria: urduritasuna eta lotsa eragiten baitu. Askotan, epaiketatik edo indarkeriatik babesteko, gorputz batek ukatu egiten dio bere buruari besten aurrean erakusteko, atsedeen hartzeko edota produktiboak ez diren plazerez gozatzeko aukera. Hori horrela, proiektua gidatzen duten bi galdera sortu dira nigan: zeintzuk dira bizi, aitortu eta partekatu daitezken afektuak? Eta gozatzen, atsedeen hartzen edo negar egiten duen gorputz batek nola desordenatu dezake ezarritako ordena?



Irune Aramendi Alberdi

Azpeitia, 1993



ZURI LILA HORI

Gertakari jakin baten ondoren piztutako desiotik abiatzen da proiektu hau. Paseoan nengoela, bat-batean paisaiak ezohiko tonalitate bat hartu zuen: zerua argi berezi eta lila batez tintatu zen, giroa kargatu egin zen, airean ia txinpartak baleude bezala. Ekaitzaren aurreko une horrek erasan egin zidan, hitzez deskribatzea zaila zen sentrazio batez.

Bizipen horretatik abiatuta, Sormen Bekaren bitartez pinturan eta marrazkian oinarritutako lana garatu da, kolore horiek, giro eta energia hori neureganatzeko eta euskarri gainean islatzeko asmoz.

Sortze-prozesuan intuizioak eta memoriak garrantzi handia izan dute, baita paisaiak eta inguruneak ere.



Arriet Aldalur Lizaso

Azpeitia, 2001



ILUN

Ilun proiektuarekin nire helburua mundu bizi bat sortzea zen, mundu guztiz desberdin bat, gure errealitatearekin zerikusi gutxi zuena. Ilun-eko argia izpi bat izan beharrean, airean dagoen partikula bat gehiago da eta bertako izakiak argia kontsumitzen dute kontzientzia lortzeko. Erabiltzen den argi guztia betirako galtzen da eta ez dago modurik argia sortzeko, mundua beraz, iluntzen doa.

Hemendik abiatuta ideia berri ugari hasi nintzen gehitzen, idazten, programatzen, margotzen, eta jokia pixkanaka haunditzen joan da.

Hasierako proposamenaren xarma galdu ez dezan, nire asmoa orain dena sinplifikatzea da, eraiki dudanetik ideia interesgarrienak hartu eta koherentzia ematea guztiari.



SORKUNTZA EGONALDIAK

Xabi “Jabato” Lopez Jimeno

Oiartzun, 1987



PLATÓ

Kalerako antzerki-obra satirikoa, dibertigarria eta eroa da. Antzerki fisikoa, objektuak, zuzeneko musika, ikus-entzunezkoak eta dantza uztartzen ditu, eta telebista-plato baten formatuan aurkezten da, non fikzioa eta errealitatea etengabe nahasten diren.

Gaurko gonbidatuak platoan erlijio judeokristauko figura ikonikoenak dira, eta haien bidez agerian geratzen dira mendeetan errepikatu eta sinetsi ditugun fikzioak, konbentzioak eta uste faltsuak.

Aurkezlea da protagonista, zeinak ez dion beste aktoreari erdigunean tokirik uzten; haren ahotsa itzaleangeratzen da, 2000 urtetan luzatutako kontakizunaren ispilu amaiezin baten moduan. Paradoxikoki, zapalkuntza hori salatzen duen aktorea bera ere sistema beraren barruan harrapatuta dago.

Ikusleak, ezustean, telebista-plato bateko publiko bilakatzen dira. Saretze horretan, herriko musikari eta dantzariak zuzenean parte hartzen dute, komunitatea ikuskizunaren barruan txertatuz.

Mundua plato bat da. Fokuak, fama, musika: fikzioa. Non zaude zu? Nor ari zaizu deika isiltasunean? Entzuten duzuna jarraitzeko ausardiarik baduzu?







Irene Zarrabeitia Mendez


Abadiño, 2000



STONE AGE | DEADLINE

Stone age collage eszeniko bat da, eta "egia" ikertzen dugu, tematika bezala. Horretarako, hainbat material eta hizkuntza erabiltzen ditugu: dantza, testua, irudi espezifikoak, zuzeneko kamera eta mikroskopia zientifikoa ere eszenan.

Obra performatibo honetan egiaren eta irudiaren propietateak zalantzan jartzen ditugu. Zer da egia? Ze materialekin eraikitzen da? Akastuna izan daiteke? Barnean gune hutsak ditu?



enario
el bonito





Azpeitia
Denontzat

Kulturaz15
Hamabost urte kulturaz gozatzen

